

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

3303

EBAZPENA, 2024ko apirilaren 30ekoa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, zeinaren bidez antxoaren eta/edo hegaluzearen kontserben eta erdikontserben enpresentzako laguntzak ematen eta ukatzen baitira, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren babesean. Agindu horren bidez, Ukrainaren inbasioaren ondoriozko testuinguru ekonomikoak oso eragindako elikadura-kateko sektoreentzako ezohiko laguntzen deialdia egin zen 2023. urterako.

Ikusi dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren II. kapituluaren babesean aurkeztutako laguntza-eskaerak. Agindu horren bidez, Ukrainako inbasioaren ondoriozko testuinguru ekonomikoak asko eragiten dien elikadura-kateko sektoreentzako 2023ko ezohiko laguntzen deialdia egin zen. Horrez gain, eskabide horiekin batera aurkeztutako dokumentazioa ere aztertu da.

Kontuan hartu da Balorazio Batzordeak egindako ebazpen-proposamena. Batzorde hori deialdi-aginduaren 8. oinarria aplikatuta eratu eta Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren 2023ko azaroaren 17ko Ebazpenaren bidez izendatu zen.

Balorazio Batzordearen ebazpen-proposamena egiteko, kontuan hartu dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduan ezarritako onargarritasun-irizpideak.

Aurretik azaldutakoa aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean zerrendatutako eskatzaileei Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren II. Kapituluaren jasotako laguntzak ematea (antxo-kontserben eta -erdikontserben eta/edo hegaluzearen enpresetarako). Eranskin horretan, zuzeneko laguntza gisa emandako zenbatekoa zehazten da, 840.848,52 euro, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura finantzatuta.

Bigarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean zerrendatutako eskatzaileei Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren III. Kapituluaren jasotako pentsu-fabrikatzaileentzako laguntzak ukatzea, eta eranskin horretan laguntza ukatzeko arrazoia zehaztea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta, beraz, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko du beronen aurka, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako sailburuordearen aurrean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 30a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
RAÚL PÉREZ IRACHETA.

I. ERANSKINA

ANTXOAREN ETA/EDO HEGALUZEAREN KONTSERBEN ETA ERDIKONTSERBEN
ENPRESENTZAKO LAGUNTZEN PROGRAMAREN KONTURA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

	Espediente-zk.	Sozietate-izena	IFZ	Laguntza (€)
1	00001-CAB2023-61	Conservas Cusumano, S.A.	A48126569	124.046,94
2	00002-CAB2023-61	Matithor Iberica, S.L.	B48269047	11.855,07
3	00003-CAB2023-61	Conservas Zallo, S.A.	A48088215	9.120,32
4	00006-CAB2023-61	Conservas La Gaviota, S.L.	B48538052	44.954,10
5	00008-CAB2023-61	Conservas Aguirreoa, S.A.	A48153027	38.127,34
6	00010-CAB2023-61	Zizzo Billante Hermanos, S.A.	A20065769	42.462,00
7	00014-CAB2023-61	Conservas Nardin, S.L.	B20514915	5.988,32
8	00017-CAB2023-61	Marino Martinez de Luco Marmar, S.L.	B48165732	32.275,63
9	00020-CAB2023-61	Hijos de Jose Serrats, S.A.	A48005672	133.893,09
10	00021-CAB2023-61	Conservas Guenaga, S.A.	A48181820	21.912,72
11	00022-CAB2023-61	Salanort, S.L.	B20531604	3.967,49
12	00023-CAB2023-61	Conservas El Velero, S.L.	B20575577	25.159,16
13	00024-CAB2023-61	Conservas Ortiz, S.A.	A48002943	300.000,00
14	00025-CAB2023-61	Salica, Industria Alimentaria, S.A.	A48434781	29.421,33
15	00026-CAB2023-61	Maisor Kontserbak, S.L.	B20599205	1.699,36
16	00029-CAB2023-61	Conservas Zizzo, S.L.	B75089763	15.965,65

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

Espediente-zk.	Baltzuaren izena	IFZ	Ukoaren arrazoa
00011-CAB2023-61	Hermanos Echevarria Idoeta, S.A.	A48107288	30.000 eurotik gorako dirulaguntza eskatu du, baina ez du aurkeztu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3.bis artikulua betetzen duela egiaztatzen duen agiririk.
00027-CAB2023-61	Conservas Dentici, S.L.	B48562052	Ez du betetzen deialdi-aginduaren 17.c) oinarria, ez dagoelako alta emanda EJSN 2009 1022an agindua argitaratu aurretik, eta 2022an jarduera frogagarria duelako. Eskaeran akatsak daude, errekerimenduaren ondoren zuzendu ez direnak.
00028-CAB2023-61	Yurrita e Hijos, S.A.	A20026415	Adostutako prozeduren txostenean, adierazitako ordainketa-epeek ez dute betetzen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituenak, ezarritakoa.